



oinez basoa

GAUENARAK LANTZEN

Lehen Hezkuntza

2018. urtean, Iñigo Aritza Ikastolak antolatu zuen Nafarroa Oinezaren barruan, Altsasuko Oinez basoa sortu genuen. Hainbat ekintza burutu ziren (zuhaitz landaketa, garbiketa, panel informatiboak...) eta gauenarentzako habia-kutxak jarri ziren. Hau dela eta, gauenaren inguruko lanketa egin genuen Ikastolan.

Jarraian, Lehen Hezkuntzan egin genuen lana aurkezten dizuegu. Interesgarria benetan!!



GAUENARAK



Saguzarrak edo Ipar Euskal Herrian, GAUENARAK (Chiroptera) ugaztun hegalariai dira. Saguzarren aurreko besoak hegal gisa garatu dira eta horregatik hegan egiteko gai diren ugaztun bakarrak dira. Hegan egiteko modua hegaztiena ez bezalakoa da, ez baitituzte besoak mugitzen, baizik eta hatzak. Hatzen artean mintz fin bat dute.

Kalkulatzen da saguzarren 1.100 bat espezie daudela mundu osoan. Gorputzaren zati handi bat hartzen duen bihotz erraldoia dute, hegan egiteko energia ugari behar baitute. Euskal Herrian 25 espezie inguru daudela estimatzen da. Txikienek 29-33 mm. artean neurtzen dute eta 2 gramoko pisua dute; handienek berriz 1,5 metroko tamaina eta 1,2 kilogramoko pisua.

BIZITOKIA:

Bizitokia, gauenara espeziearen arabera aldatzen da. Hiru talde ezagutzen ditugu:

- HAITZULOTARRAK: Urte oso leizeetan bizi direnak.
- ERDI-HAITZULOTARRAK: Urteko garai batzuk soilik pasatzen dituztenak. Hauen artean, gurean bizi den espeziea daukagu, Bechstein gauenara.
- KANPOZALEAK: Urte osoan zehar kanpoan bizi direnak.






GAUENARA




(<https://eu.wikipedia.org/wiguzarki/Sa>)

ki/Sa



HAITZULOTARRAK

ESPEZIEA	IRUDIA	DESKRIBAPENA	HEDAPENA/HABITATA	UGALKETA	ELIKADURA
<p>Schreibers saguzarra edo koba-saguzarra (<i>Miniopterus schreibersii</i>)</p>	<p>Schreibers saguzar</p>  <p>Iraute egoera</p>  <p>la arriskuan (IUCN 3.1)</p>	<p>Pisua: 9-16 gramo</p> <p>Luzera: 50-62 mm</p> <p>Hegal-luzera: 305-342 mm</p> <p>Mutur oso motza du, eta kopeta nabarmenki handia eta irtena. Ilaje motza eta dentsoa du, marroi-gris kolorekoa.</p>	<p>Hedapen mapa</p>  <p>Leizeetan bizi den espeziea da. Gutxitan erabiltzen dituzte gizakiak sortutako eraikinak</p>	<p>9 hilabete inguruko ernaldiaren ostean, emeak ekainean eta uztailean erditzen dira. Kumeek 2 hilabete inguru behar izaten dituzte garapena amaitzeko, Emeek bi urteren buruan lortzen dute heldutasun sexuala.</p>	<p>Bere hortzeria intsektu txikiak jatera moldaturik dago.</p>



<p>Ferra-saguzar mediterraneoa (<i>Rhinolophus euryale</i>)</p>	<p>Ferra-saguzar mediterraneo</p>  <p>Iraute egoera</p>  <p>la arriskuan (IUCN 3.1)</p>	<p>Altuera: Burua eta gorputza, 4,2 - 5,8 cm. artean</p> <p>Buztanaren luzera: 2,2 - 3 cm. artean</p> <p>Hego-luzera: 38 cm.</p> <p>Pisua: 8 - 17,5 gr. artean.</p> <p>Kolorazioa eta morfologia gainerako generokideen oso antzekoa da, baina sudur aldeko egituren bitartez bereiz daiteke</p>	<p>Hedapen mapa</p> 	<p>Kumatze-koloniak martxoa erdialdean hasten dira sortzen, hauek ekaina erdialdera arte irauten dute.</p> <p>Bitarte honetan, ferra-saguzar mediterraneoek beste hainbat espezierekin partekatzen dituzte gordelekuak, talde dentsoak osatuz</p>	<p>Landaredi dentsodun inguruneetan ehizatzeo gai da eta airean esekiduran mantentzen daiteke harrapakinak lokalizatu bitartean.</p> <p>Ehiza, normalean, sastrakadi eta zuhaixkadidun paisaia zatikatuetan egiten du</p> <p>Ehiza-eremuak ez dira 10 km baino handiagoak izaten.</p> <p>Sits txikiak, euliak eta kakalardo txikiak jaten ditu batez ere.</p>
--	---	--	--	---	---







<p>Arratoi-belarria (<i>Myotis myotis</i>) Euskal Herrian topa daitekeen espezie bat da.</p>	<p>Arratoi-belarri</p>  <p>Iraute egoera</p> <p>Galdua Arriskuan Kezka Txikia</p> <p>EX EW CR EN VU NT LC</p> <p>Arrisku txikia (IUCN 3.1)</p>	<p>Pisua: 28g-40g</p> <p>Luzera: 67mm-79mm</p> <p>Hegal-luzera: 350mm-430mm</p> <p><i>Myotis</i> generoko Europako espezierik handiena da. Emeak arrak baino apur bat handiagoak izaten dira. Belarria zabala da erdiraino. Murrira zabala da, eta bi konkor ageri ohi ditu aurrealdean. Bizkarreko ilajearen kolorea arre-grisaxka da eta sabelaldekoa askoz ere argiagoa, ia zuria.</p>	<p>Hedapen mapa</p> 	<p>Parekatzeak abuztuan gertatzen dira, kumatze-kolonian bertan hasieran, eta beste gordeleku batzuetan beranduago. Garai honetan saguzarrak kobazulo osoan dispertsaturik egon ohi dira, bikoteka normalean, baina hiru emez osaturiko harem txikiak ere ohikoak dira. Espeziearen ohiko bizi-luzetasuna 5-6 urtekoa izan ohi den arren, ezagutzen dira 25 urteko animaliak ere</p>	<p>Intsektuak, armiarmak, krustazeoak ehizatzen dituzte. Ehizatzean poliki hegan egiten dute, lurretik altuera gutxira eta harrapakina lokalizatzean abiadura handian amiltzen dira</p>
---	---	--	--	--	---



<p>Arratoi-belarri ertaina (<i>Myotis blythii</i>)</p>	<p>Arratoi-belarri ertain</p>  <p>Iraute egoera</p> <p>Galdua Arriskuan Kezka Txikia</p> <p>EX EW CR EN VU NT LC</p> <p>Arrisku txikia (IUCN 3.1)</p>	<p>Besaurrearen luzera 50,5–62 mm bitartekoa da, eta pisua 18,0–29,5 gramo bitartekoa. Orban zuri bat ageri ohi du kopetan.</p>	<p>Hedapen mapa</p>  <p>Estepa eta larreetako espeziea da.</p>	<p>Kumatze-kolonia handiak eratzten ditu, abuztu bukaeran sakabanatzen direnak. Abuztuan bost emerainoko harenak sortzen dira, kumeak babesteko.</p>	<p>Matxinsalto eta kilkerrez elikatzen dira gehienbat. Landare-hostoen gainean pausatutik dauden intsektuak harrapatzen dituzte.</p>
---	--	---	--	--	--



ERDI-HAITZULOTARRAK

ESPEZIEA	IRUDIA	DESKRIBAPENA	HEDAPENA/HABITATA	UGALKETA	ELIKADURA
Ferra-saguzar txikia (<i>Rhinolophus hipposideros</i>)	<p>Ferra-saguzar txiki</p>  <p>Iraute egoera</p> <p>Galdua Arriskuan Kezka txikia</p> <p>EX EW CR EN VU NT LC</p> <p>Arrisku txikia (IUCN 3.1)</p>	<p>Altuera: Burua eta gorputza, 35-45 mm. artean</p> <p>Hego-luzera: 192-254 mm.</p> <p>Pisua: 5-9 gr.</p> <p>Bizitza: 21 urte ere. Belarri handiak izan ohi dituzte.</p>	<p>Hedapen mapa</p>  <p>Nafarroan kolonien kokapena aldakorra da urtaroen arabera.</p>	<p>Emeak lehenengo urterako emankorrak izaten dira, baina normalean ez dute bigarren urtera arte kumerik izaten.</p>	<p>Tamaina bertsuko gainerako saguzarren antzera, intsektuez elikatzen dira honakoak ere. Gehienetan hegan dabilzan intsektuak harrapatzen dituzte lurretik 2 eta 5 metro bitarteko altueran.</p>
Ferra-saguzar handia (<i>Rhinolophus ferrumequinum</i>)	<p>Ferra-saguzar handi</p>  <p>Iraute egoera</p> <p>Galdua Arriskuan Kezka txikia</p> <p>EX EW CR EN VU NT LC</p> <p>Arrisku txikia (IUCN 3.1)</p>	<p>Altuera: Burua eta gorputza, 5,7 - 7,1 cm. artean</p> <p>Buztanaren luzera: 3,5 - 4,3 cm. artean</p> <p>Hego-luzera: 35-40 cm.</p> <p>Pisua: 30 gr</p> <p>Bere illajea luzea, leuna eta dentsoa da.</p>	<p>Hedapen mapa</p>  <p>Animalia haitzulotarra da, baina haitzuloez gain mea, tunel, upategi eta bestelako lurpeko guneeetan aurki daiteke.</p>	<p>Maiatzean kumatze-kolonia sortuko den gunera iristen hasten dira aleak.</p> <p>Gazteak jaio eta 3-4 astera hasten diren hegan, eta beren kabuz bizitzeko gai direnean, 40-50 egun ingururekin, eme helduak udako gordelekua uzten</p>	<p>Aukera den bitartean, sitsez elikatzen da, eta hauen gabezian, kakalardoak ehizatzen ditu. Harrapakinak tamaina handikoak izaten dira. Baso zein leku irekietan 200-300 metroko ibilbide zirkularrak egin ohi ditu harrapakin bila.</p>



				hasten dira. Emeek 3-4 urterekin lortzen dute heldutasun sexuala.	
<p>Saguzar bibotedun edo bizar-saguzarra (<i>Myotis mystacinus</i>) Euskal Herria topa dezakegun espeziea da.</p>	<p>Saguzar bibotedun</p>  <p>Iraute egoera</p> <p>Galdua Arriskuan Kezka Txikia</p> <p>EX EW CR EN VU NT LC</p> <p>Arrisku txikia (IUCN 3.1)</p>	<p>Pisua: 4g-8g artean.</p> <p>Luzera: 35mm-48mm artean.</p> <p>Hegal-luzera: 190mm eta 225 mm artean.</p> <p>Ile luzea du, kizkur xamarra, marroia bizkaraldean eta grisa sabelaldean.</p>	<p>Hedapen mapa</p>  <p>Neguan, leizeetan hibernatzen du eta udan, kanpoan bizi da. Espezie sedentarioa da, hau da, beti leku berean bizi ohi da.</p>	<p>Arraldia udazkenean hasten da eta parekatzeak udaberrira bitartean gerta daitezke. Emeek osatzen dituzten kumatze-koloniatan 30 ale. Ugal sasoiari gordelekua behin baino gehiagotan aldatu ohi dute. Kumeen jaiotzak ekaina bukaeran eta uztailea hasieran gertatzen dira.</p>	<p>Dipteroak eta armiarmak ditu elikagaitzat.</p>
<p>Iparraldeko belarrihandia edo belarrihandi arrea (<i>Plecotus auritus</i>).</p>	<p>Iparraldeko belarrihandi arrea</p>  <p>Iraute egoera</p> <p>Galdua Arriskuan Kezka Txikia</p> <p>EX EW CR EN VU NT LC</p> <p>Arrisku txikia (IUCN 3.1)</p>	<p>Bere ezaugarri nagusia belarri handiak izatea da. Gainerako generokideen antza handia du, baina kolore arre-horixka da espeziea bereizteko ezaugarria.</p>	 <p>Europe Alien territories of noncontiguous countries Considered European for cultural and historical reasons</p>	<p>Gordeleku gisa arrakalak erabiltzea atsegin dute, eta kobazuloetan zein zuhaitzetako zuloetan topa daitezke. Kumatzeko kolonia asko giza eraikinetan egon ohi dira, elizetan edo</p>	<p>Europako belarrihandien artean dieta aberatsena duen espeziea da, hegaz ehizatzeaz gain, lurrian zein landarediaren gainean pausatutako animaliak harrapatzeko gai baita.</p>







				<p>etxe zaharretako ganberatan, eta kasu horietan teilatuko egurren artean edo bestelako arrakalatan sartu ohi dira.</p>	
<p><i>Myotis bechsteinii</i> (edo Bechstein saguzarra) baso zaharrei loturikoa. Hau bertan, Sakanan, aurkitu daitekeen espeziea da.</p>	<p>Bechstein saguzar</p>  <p>Iraute egoera</p> <p>Galdua Arriskuan Kezka txikia</p> <p>EX EW CR EN VU NT LC</p> <p>1a arriskuan (IUCN 3.1)</p>	<p>Bechstein saguzarra tamaina ertaineko kiropteroa da, belarrien tamaina handiagatik generokideetatik erraz bereiz daitekeena. 23-26 mm.ko luzera izan ohi dute.</p>	<p>Hedapen mapa</p> 	<p>Arraldia udazkenean hasten da eta parekatzeak udaberrira bitartean gerta daitezke. Emeek osatzen dituzten kumatze-koloniatan 30 ale inguru bildu ohi dira.</p>	<p>Hegaldi motel eta maniobragarrietan ehizatzen ditu intsektuak lurretik altuera handira. Normalean 1-5 metroko altueran jardun ohi da, nahiz eta 15 metroko altueran ere behatu izan diren aleak, zuhaitzen gainean ehizan. Hala ere, Europa erdialdean dietaren zati handiena intsektu ez-hegalarietara osatzen duela ikusi da, eta beraz, landareen gainean pausatutako intsektuez ere elikatzen da.</p>

KANPOZALEAK


ESPEZIEA	IRUDIA	DESKRIBAPENA	HEDAPENA/HABITATA	UGALKETA	ELIKADURA
<p>Saguzar arrunta (<i>pipistrellus pipistrellus</i>) Euskal Herrian topa daitekeen babestutako espezie bat da.</p>	<p>Saguzar arrunt</p>  <p>Iraute egoera</p> <p>Arrisku txikia (IUCN 3.1)</p>	<p>Europan dagoen saguzarrik txikiena da: 36-51mm arteko luzera du; hego baten puntatik bestera 180-240 mm baino ez ditu neurtzen.</p> <p>Pisua ere arina du: 3,5 gramotik 8 gramora.</p>	<p>Hedapen mapa</p>  <p>Gizakiak eraikitako gunetan bizitzea maite du: etxe zaharretako harrien tartean, teilapeetan, biltegietan... Atsedena hartzeko ez da sabaitik eskegita jartzen; zuloetara gordetzen da.</p>	<p>Oihu zorrotzak igortzen ditu, bereziki udazkenean, arrek haien presentzia agerrarazi nahi dutenean hegan dabilzala.</p>	<p>Bere hortzeria, heltxo moduko intsektuak jatera moldaturik dago. Intsektujalea-da.</p>



<p>Gau-saguzar txikia edo Leisler saguzarra (<i>Nyctalus leisleri</i>) Euskal Herrian topa dezakegun espeziea da.</p>	<p>Gau-saguzar txiki</p>  <p>Iraute egoera</p> <p>Galdua: EX, EW Arriskuan: CR, EN, VU, NT Kezka Txikia: LC</p> <p>Arrisku txikia (IUCN 3.1)</p>	<p>Tamaina ertaina du; belarriak zabalak, hiruki formakoak eta bazter kiribildua dutenak.</p> <p>Pisua: 13g eta 20g artean.</p> <p>Luzera: 48mm eta 68mm artean.</p> <p>Hegal-luzera: 260mm eta 320mm artean.</p>	<p>Hedapen mapa</p>  <p>Urte osoan zehar leize-zuloetatik kanpo bizi da. Zuhaitz zuloetan babesten da, makurtua.</p>		<p>Kakalardoak eta sitsak ehizatzen dituzte, basoen gainean hegana eginez edo zuhaitz handien inguruan.</p>
<p>Baratze-saguzarra (<i>Eptesicus serotinus</i>)</p>	<p>Baratze-saguzar</p>  <p>Iraute egoera</p> <p>Galdua: EX, EW Arriskuan: CR, EN, VU, NT Kezka Txikia: LC</p> <p>Arrisku txikia (IUCN 3.1)</p>	<p>Belarri handiak ditu. Tamaina handiko saguzarra da, 46 eta 55 mm bitartekoa. Pisua, 17 eta 28 gramo bitartekoa.</p>	<p>Hedapen mapa</p> 	<p>Emeak apirila erdialdean iristen dira kumatze-koloniataro eta maiatza bukaerarako koloniak beteta egon ohi dira. Iberiar penintsula hegoaldean jaiotzak ekainean gertatzen dira</p> <p>Kolonia hauetan arren presentzia oso arraroa da. Jaioberriek 5 gramo inguruko pisua izaten dute.</p>	<p>Hegana dabilzan intsektuetaz elikatzen dira eta hegana harrapatu eta hegana jaten dituzte.</p>



GAUENARAREN MORFOLOGIA





GAUENARA BATEN ESKELETOA

GAUENAREN ETXEAK

(Habia-kutxak)

